


HARRIKADIE

Poesia egunetako berripapera Ea-Bizkaia

2012ko uztailaren 13tik 15era



POESIA HUTSA EDO AZUKREAGAZ?

Xabier Amuriza, Norte Apache, Mikel Elorza, Iñigo Astiz, Yolanda Castaño, Jon Gerediaga, Ione Gorostarzu, The Soul Stompers, Mikel Lasas, Edorta Jimenez, Garazi Izagirre, Itziar Etxegia, Labea laborategia, Iñigo Aranbarri, Dantzaz konpainia, Biraka dantza taldea, Eako umeak, Ruper Ordorika, Jon Piris, Leire Bilbao, Domentx Uzin, Mikel Ayerbe, Ibon Egaña, Angel Erro, Kattalin Miner, Juanjo Olasagarre.

www.eakopoesiaegunak.com



gabriel arestiren
etxea

Uztailaren 13a, barikua

19:30ean, Beletxen
ARESTIREN KOPLAK
AHOAN


ERREZITATZAILEA: Xabier Amuriza

22:30ean, Eskolapen
POEMAK RAPEATZEN


MUSIKARIAK: Norte Apache




Eako umeak




Mikel Lasar



Norte Apache



Xabier Amuriza




Iñigo Astiz



Mikel Elorza



Jon Gerediaga



Ione Gorostazu




The Soul Stompers



Edorta Jimenez



Dantzaz Konpainia



Garazi Izagirre




Itziar Etxegia




Biraka dantza taldea




Labea laborategia



Jon Piris



Kattalin Miner



Juanjo Olasagarre

Uztailaren 14a, zapatua

10:30ean, Beletxen
LP BAT POEMA

HIZLARIA: Mikel Elorza

13:00etan, Talaian
IDAZLEAK IRAKURLE

ERREZITATZAILEAK: Iñigo Astiz, Yolanda Castaño,
Jon Gerediaga eta Ione Gorostazu

MUSIKARIAK: The Soul Stompers

15:00etan, Bedaroan
Herri-bazkaria

16:30ean, Bedaroan
MIKEL LASA GURE ARTEAN

HIZLARIA: Edorta Jimenez

MUSIKARIAK: Garazi Izagirre eta Itziar Etxegia

19:00etan, Apikalen
MUNDUAN BESTE

Labea laborategia

TESTUA: Iñigo Aranbarri

22:30ean, Barruko moilan
SARRITSASOA

Dantzaz Konpainia eta Biraka dantza taldea,
Eako umeen laguntzarekin.

23:30ean, Eskolapen
OROIMENAREN MAPA

MUSIKARIAK: Ruper Ordorika eta Jon Piris

Uztailaren 15a, domeka

11:30ean, Beletxen
POETIKA ETA
POEMAK: LANDA
SAKONTASUNEZKO
IKUSPEGIA

HIZLARIA: Yolanda Castaño

13:00etan, Moilan
SCANNER


ERREZITATZAILEA: Leire Bilbao

MUSIKARIAK: Domentx Uzin


15:00etan, Natxituko bolatokian
Herri-bazkaria

17:15ean, Natxituko bolatokian
EZOHIKO POEMA
ERREZITALDIA: EZ DOK/IN
ARMAIRU

ERREZITATZAILEAK: Mikel Ayerbe, Ibon Egaña,
Angel Erro, Kattalin Miner, Juanjo Olasagarre



Yolanda Castaño




Leire Bilbao




Domentx Uzin




Mikel Ayerbe



Ibon Egaña



Angel Erro



Ruper Ordorika



Biraka dantza taldea

Arestiren koplak ahoan

Haragiaren adarrak
handik zintzilik abarrak
gogoangarriak dira
zure bi begi nabarrak.

Zerutik dator harria
nundikan dator argia?
Gau ilun honetan dakust
zure aurpegi garbia.

Martxoko oilar gorria
inundik ez etorria
goseak arintzearren
judu batek igorria.

Goizaldean eguzkiak
printzak daduzka bustiak
oso merke saltzen dira
euskaldunaren ustiak.

Arestik koplak eta bertso sorta ugari eta luzeak ondu zituen. Euretako batzuk kantatuko ditu Xabier Amurizak, Arestiren estiloaz, ideiez eta teknikaz iruzkin zenbait egiteko aukera emanez. Paraleloki, bere koplak, bertso eta letra batzuk ere kantatuko ditu, bere irizpideen edo bilatzen dituen balioen azalpen bat emanez eta elkarrizketa zabalduz.

HITZALDIA ETA ERREZITALDIA

Xabier Amuriza
19:30ean
Beletxen
Uztailaren 13a (barikua)




Poesia hutsa edo azukreagaz?


POESIAK purua ala gizarteko arazoetan lohitua izan behar zuen eztabaidatzen zen garai batean. Arestik erakutsi zigun lohi horrek humanoago eta, beraz, ederrago baizik ez zuela egiten poesia. Guk ez daukagu errezetarik nolakoa izan behar duen gaurko eta biharko poesiak, baina ahalik eta modu gehienetan eskaini nahi dizugu: hutsik, musikaz jantzirik, antzerkiaz lagundurik, hitzaldi bihurturik... azukre apur bategaz.

Poemak rapeatzen

Bilboko Ezkerraldea denbora askoan izan zen punkaren eskal gotorlekuetako bat. Egun, badirudi egiak kantatzerakoan, hitz politikoak eta aldarrikapenak kaleratzerakoan, rapak beretzat hartu duela punkien behar hori eta, beraz, gauzatzen doala duela urte gutxi ezinezkoa zirudiena: euskara eta rapa uztartzea. Norte apache Aitor (DJ) santurtziarrak, Ibon (MC) sestaoarrak eta Rayco (MC) bilbotarrak osatzen dute, eta 2007az geroztik ari dira kontzertuak eskaintzen. Kantetan gazteen arazoak eta gaztetxeak, errepresioa eta inposatutako azpiegitura erraldoiak dituzte hizpide, baita herri indigenak ere.



Gazteak ilegalak
Egurak legalak leialak
Bizi ditugun legeak inpartzialak
Bukatu da, zahartzaroa 16 urte
Ta ahotsik gabe zure kondena bete arte
VPO non dago Meka? Hemendik hona herrenka ordaintzen hipoteka
Ta errenta, basikorik ez al da esistitzen? Bahitzen
Gaztea naiz eta harro nago, gaztea naiz baina nire kontratua non dago?
...



KONTZERTUA

Norte Apache
22:30ean
Eskolapen
Uztailaren 13a (barikua)

LP bat poema



Poesiaren elementu baitako bat da musika, erritmoa, doinua; horretaz gain, ordea, musika, kantuak zehazki, poesiaren etxea askori ireki digun giltza izan da. Belarrietatik iritsi zaizkigu hainbat poema, gerora begietaratu ditugunak. Autore klasikoetatik XXI. mendekoetara, gure hainbat kantarik poesiaren iturrira jo du, eta haiekin gu, ur horien edatera. Ikus dezagun, edo entzun, bitzta bateko lp bat.




HITZALDIA

Mikel Elorza
10:30ean
Beletxen
Uztailaren 14a (zapata)

HERRI-BAZKARIA

15:00etan
Bedaroen
Uztailaren 14a (zapata)



Idazleak irakurle



Yolanda Castaño (Santiago, 1977) poeta da, filologoa, bideo-sortzailea, zutabegilea eta eragile aktiboa Galiziako kultur bizitzan. Sari ugari irabazi ditu, helduentzako bost poema-liburu argitaratu ditu bakarka —azken hirurak galiziera-gaztelania edizio elebidunak—, eta haurrentzako poesiazko hiru liburu. Urtetan lan egin izan du telebistan, eta poesia beste arte-mota batzuekin batzeko esperimenduak landu izan ditu: plastika, musika, performancea, dantza zein ikus-entzunezkoak, bakarka nahiz beste artista batzuekin.

Jon Gerediaga (Bilbo, 1975). Hainbat urtez, FTI-Antzerkiola imajinarioak taularatu-tako antzezlanean gidoian hartu zuen parte. Poesiari dagokionez, hiru liburu argitaratu ditu, Pamiela etxarekin: Fitola balba, karpuki tui (2004), Jainkoa harrapatzeko tranpa (2007) eta Zentauro-hankak (2012).

Ione Gorostarzu (Berastegi, 1984). Idazle Eskolako graduondoa egin zuen, eta aurten argitaratu du bere lehen poema liburua: Des egiten (Elkar, 2012). Mungiako Lauaxeta saria ere irabazi zuen 2011n.

Iñigo Astiz (Iraizotz 1985). Kazetaria, musikaria, itzultzailea... hamaika gauza batera dela esan daiteke, baita idazlea ere. Bere lehen poema liburua argitaratu du aurten Susa argitaletxarekin: Baita hondakinak ere.

The Soul Stompers soul eta R&B-aren jatorriak lantzen dituen talde bizkaitarra da. New Orleanseko soul-funketik hasita, The meters-en ondan, Atlantic-eko soinurik klasikoenetaraino mugitzen da. 60ko hamarkadako musika afroamerikarreko banda instrumental handien eritmo gozoak oinarritzat hartuz, The Soul Stompers taldeko kideek beren ukitu berezia eranstean diete.

POEMA ERREZITALDIA


Iñigo Astiz, Yolanda Castaño, Jon Gerediaga eta Ione Gorostarzu

MUSIKARIAK: The Soul Stompers

13:00etan

Talaian

Uztailaren 14a (zapata)



Mikel Lasa gure artean

Gabriel Arestik Harri eta herri idatzi zuen garaitsuan ari zen bere poesia ontzen Mikel Lasa; biek miresten zuten elkar, nahiz bide desberdinak erabili: Lasaren poesiak ordura arte euskaraz erabili gabeko gaiak, moldeak eta tonua zekartzan: sentsuala, laxoa, malen-koniatsua, Europako abangoardien eta batez ere poeta simbolista frantziarren eragina zuena. Lasaren geroztiko isiltasunak areagotu baizik ez du egin harrigarriaren mirespena. Gure artean izango dugu aurten Mikel, eta berari laguntzeko Edorta Jimenez.

SOLASALDI MUSIKATUA

Edorta Jimenez

MUSIKARIAK: Garazi Izagirre eta Itziar Etxegia

16:30ean

Bedaroen

Uztailaren 14a (zapatua)



Munduan beste



Munduan beste ikuskizunean, Eguzki-Jaia etxearen historiatik abiatuta, identitatearen inguruko gogoeta kritikoa egin nahi izan dute egileek. Zer dio horrelako etxe batek gutaz? Nortzuk gara "gu"? Euskal identitatearen inguruko gogoeta kritikoa eta autokritikoa ikusi ahal izango da beraz, besteak beste "etorkin" izaeraren kontraesanak azaleratuz, musika eta literaturaren hainbat erreferentziaren haritik. Inigo Aranbarrik berariaz idatzitako testuan oinarritu da Labea laborategia, hainbat arte mota eszenan uztartuz: antzerkia, dantza garaikidea, zirkua, pintura, errezitaldia eta musika, dena zuzenean.



ANTZERKIA

Labea laborategia

TESTUA: Inigo Aranbarri

19:00etan

Apikalen

Uztailaren 14a (zapatua)

Sarritsaso



Zorigaitzoko naufragio batetik bizirik irtendakoak berriro elkartu dira azkenean. Galdu zituzten lagunuen oroitzapenak, haien emozioak –sarritan ezkutuan gordeak–, berriro elkartu izanak eman dien poza sortu dira bat-batean, zoria, tristura, amorrazioa, harrotasuna eta itxaropena piztuz. Joseba Sarrionandiaren poesia hunkigarriaren bitartez, euskal autoreek egindako musikak lagunduta, Dantzaz konpainiako dantzariak eta Biraka dantza taldeak geure sentimenduez jabetzen lagunduko digute, inimizio bidaia batean, itsasora begira, espazio infinitura, gure irudimenari mugarik jarri gabe.

KALE-ANTZEZLANA

KOREOGRAFOA: Josu Mujika

MUSIKA: Javier Muguruza, Ken zazpi, Kortatu, Mikel Laboa, Ruper Ordorika eta Deabruak teitatueta.

DANTZARIAK: Dantzaz Konpainia eta Biraka dantza taldea, Eako umeen laguntzarekin.

JANTZIAK: Benedetta Orsoli

DANTZAZ KONPAINIA: Zuzendari nagusia, Fernando Sáenz de Ugarte eta Zuzendari artistikoa, Adriana Pous.

22:30ean

Barruko moilan

Uztailaren 14a (zapatua)

Oroimenaren mapa



Oroimenean eta larrian itsatsiko zaizkigun kantu biluzi eta balsamikoek bilduma bat. Artifiziorik gabe. Ruper Ordorika eta Jon Piris. Gitarra, ahotsa eta kontrabaxua. Naturala. Bata bestearen atzetik uneak, tokiak, maitasunak, galderak, minak agertuko zaizkigu. Kantuak musika eta hitza izaten du. Musikak Ruper Ordorikak sortuak dira eta hitzak, guztiak, Joseba Sarrionandiak.

KONTZERTUA

Ruper Ordorika eta Jon Piris

23:30ean

Eskolapen

Uztailaren 14a (zapatua)



CONTOS DE FADAS

Érase unha vez
...e ao final do conto
a carapuchiña era unha loba,
a avoiña un leñador,
a devoradora unha asceta,
a libérrima un completo compendio de dependencias,
a mística unha frívola tinguida de temores,
o incomprendido un anxo,
a princesa un monstro,
a frívola unha mística tinguida de temores,
o monstro unha princesa,
o outro incomprendido un demo,
a suposta loba unha absoluta carapuchiña
e o camiño entre o bosque
un leñador.

Profundidade de campo, (2007)
Yolanda Castaño

MAITAGARRIEN IPUINAK

Behin batean bazen
... eta ipuinaren amaieran
txanogorritxo otso emea zen,
amonatxoa egurgilea,
gizonjalea anakoreta bat,
andre liberatua menpekotasun guztien bilduma,
andre mistikoa beldurrez jantzitako kaskarina,
inork ulertzen ez zuena aingeru,
printzesa munstro,
andre kaskarina beldurrez jantzitako mistikoa,
munstroa printzesa,
ulertzen ez zuten beste hura deabru,
balizko otsema erabateko txanogorritxoa,
eta basoko bidea
egurgilea.

Profundidade de campo, (2007)
Yolanda Castaño

INFINITUA DASTATZEKO

Itsasotik lasterka atera
eta azalak eguzkitara utzi
biluzik eta zimurtuta
haragiaren zama gozatu
eta erabat jantzi gabe etxeratu

agurtu bizilagunak bizkor
eta erabat biluztu gabe
zure aluan nahasian sumatu
milimetro bakoitzaren garrantzia
eta inmentsitate haren zaporea

Iñigo Astiz

Bihurguneak, aldapak
semaforo eta stopak
batzuetan mantsoegi, ezinean
besteetan azkarregi, isunak
eta erregaia garesti
eta gurpilak higuak
gidabaimenik gabe jarri zidaten
bizitza eskuetan

Ione Gorostarzu

HILKOR

Zu maitatzeko egin nintzen hilkor
 eta elurra modu goibelean erori zen
 isilik lurraren gainera
 erabakia hartu nuen egunean
 amak agur esan zidan
 zapi zuri eta gorri batekin
 eta ni zure eskutik helduta abiatu nintzen
 baratze zoragarri
 eta mugatuetara.

Ez naiz damutzen.

Zure aldamenean
 atsedean hartzen dute Jainko Handiek.

Orain hilkorren minek zulatuko naute
 eta arbuiatuko ditut zeruak
 irainduen eta zaurituen kolerarekin
 betiko galduko dut nire lekua hodei artean
 zure hezur eta haragizko besarkadaren truke

baina ez naiz damutzen ez
 aski dut lur beltz honekin.

Orain nire apatx gogorrekin
 laztantzen dut zure lokatza
 eta zoriontsua naiz une batez
 eta une batez esker onekoa

eta zure izenean kantatzen dudanean
 kantatzen dut lur eta zeruaren alde.

Jon Gerediaga

Tamariza eta pikondoa I - amodio galduak

*Goiz beltzen diren pikoak
 maite ditu ene arimak.*

Axular

Euriaren tristea
 ari ta ari atergabeko amaian.

Katuak ganbaretan lo daude gau t'egun
 denborari denbora eman ez...

Paradisu galduetako oroipena da
 nola palmondo handi baten pean
 itzala genuela adiskide
 nola tamariza ta pikondopean
 ari ginen bekatu
 haragizko bekatua
 euriagatik triste ari
 triste diren bezala tamarindoaren adarrak
 itsas bazterrean
 euriaren pean
 triste ta ustel palmondo
 udazkenean
 chalet ubelaren jardinean
 Zarauzko plaiatik ez hain urruti.

Nola bion gorputzak gurutzaturik
 (bagenekien ez genuela elkar maite)
 bestearengan bilatzen genuen
 gurean ez daukaguna:
 mundu axolagabeak itsaso izugarriak plaiaren bakardadeak
 ematen ez ziguna: maitasunaren arrastoa.

Arratsalde hura munduaren azken eguna zen
 t'amore eman genion bizitzari.

Udaberrian kantatu nuen hasierako egunaz ez naiz oroitzen

Jainkoak gizona tankeratu zuen egunaz
 bizirako arnasa isuri zionaz
 ez naiz oroitzen
 paradisu azken egun honetan.


Katuak ganbaretan lo daude
 tolesgabeko ametsetan
 urteak eta denborak deusezten
 edota denbora milaka ugaritzen.

«DANA»k ta «NADA»k zirkulua bukatzen dute.

Mikel Lasa

Poetika eta poemak: landa-sakonta-sunezko ikuspegia

Yolanda Castaño galiziar poetak bere esperientziari eta poetikari buruzko azalpena emango du, berarentzat esanguratsuak diren zenbait aztergai jorratuz: genero-ikuspegia, beste sormen-lengoaia batzuekiko elkarrizketa, poesia zabaltzeko bideen berrikuntza... Hitzaldian zehar bere testuak txertatuta, Yolanda ezinbestekotzat jotzen dituen balioak aipatuko ditu: zintzotasuna eta exijentzia, hitzarekiko konpromisoa, besteak beste. Halaber, 18 urteko ibilbidean galizieraz argitaratu izanak sortu dizkion galderari erantzuten saiatuko da: zelan uztartu gutxiengo batentzat idaztea eta zabal-kundea? Nola, bokazioa eta profesional-tasuna? Nola josi norberaren nortasuna eta jendaurreko irudia?



HITZALDIA

Yolanda Castaño
11:30ean

Beletxen


Uztailaren 15a (domeka)

HERRI-BAZKARIA

15:00etan

Natxituko bolatokian

Uztailaren 15a (domeka)



Scanner

Eskanerrak irudi bat hartu eta gorde egiten du, edo barrenera begiratu eta ikusitakoa agerian jarri. Idaztean ez al dugu gauza bera egiten? Bilbaok ere introspekzio ariketa bat egin du, ingurura begira ere jarri da eta sei atal idatzi ditu, bakoitza gai bati buruz. Halere, bada hari bat denak lotzen dituen, identitatea.

Leire Bilbao (Ondarroa, 1978) 2006an plazaratu zen literaturara Ezkatak poema liburuarekin. Geroztik zortzi liburu argitaratu ditu haur literaturan. 2011n argitaratu zuen bere bigarren poema liburua, Scanner deritzona.

Domentx Uzin (Soraluze, 1976). Musika ikasketak Bergara eta Gasteizen egin zituen eta ondoren Salamancan lizentziatu zen Musikaren Historia eta Zientzietan. Arrasate Musikaleko maisua izan da, Hezkuntza Berezian. Baita Biolin eta Biolako maisua ere. Bergarako Orkestra Sinfonikoko kide izan zen, eta Arrasate Musikaleko Orkestako kidea da.

MEMORIA

Nire izena ahaztu nuen lehendabizi.
Eskuak zertarako nituen ahaztu nuen gero,
hitzak zertarako diren
minak zer esan nahi duen.

Nire izena ahaztu nuen lehendabizi.
Nigandik espero zizutzen esperantza guztiak
ahantzi nituen gero,
zeini egin behar nion irribarre,
zeini eskua oratu.

Nire izena ahaztu nuenetik
beste ezertaz ez naiz oroitzen.

Ordutik aurrera sortzen dut.

POEMA ERREZITALDIA

Leire Bilbao

MUSIKARIA: Domentx Uzin

13:00etan

Moilan

Uztailaren 15a (domeka)



Ez dok/n armairu



ez don armairu,
ez dok armairu!

ez-les poesia irrezitaldia

Rikardo Arregi, Mikel Ayerbe, Ibon Egana,
Angel Erro, Kattalin Miner eta Juanjo Olasagarre

Ez Dok Armairu. Eta ez don armairu. Ezta hamahiru ere. Hamaika emanaldiren ostean, hamabigarren honekin bukatutzat ematen delako Desira desordenatuak liburuaren aurkezpenaren aitzakia gisa sortutako errezitaldi bitxi edo queer hau, lumak joan lumak etorri, Euskal Herri osoa korritu duen errezitaldia. Poesia zein sermoiak: pulpitutik, belauniko edo lau hankatan. Armarutik zein tonutik kanpo, hitzak irudiek nahastuz, poema bat edo beste musikatzuz. Ez dok armairu. Ez Don Armairu.

EZOHIKO POEMA ERREZITALDIA

Mikel Ayerbe, Ibon Egana, Angel Erro, Kattalin Miner, Juanjo Olasagarre

17:15ean

Natxituko bolatokian

Uztailaren 15a (domeka)

